

## KANALAK

Gure bezeroak edozein izan daitezke, nahiz eta, gustuak eta adina askotan arazo bat izaten dan produktu bat saltzeko orduan. Hala eta guztiz ere, hasieran enpresa digitala izango denez, erosleen adina mugatua izango da, zaharrenek ez baitituzte objektu elektronikoak erabiltzen. Hasieran, esan dugun bezala, gure enpresa on-line izango da, zeren eta, gure hasierako baliabideak murriztuak izango dira eta egoera hori aztertu eta gero, errentagarria ateratzen da hasieran on-line denda egitea eta gero enpresa hazterakoan edo handitzean denda fisikoak egin ditugu leku desberdinetan, hala nola, Madrid, Bartzelona, Donosti, etab.

Lehen esan dudanarekin jarraituz, hasieran denda on-line izango da, eta, horretarako, web-orri bat sortuko dugu, erosleek nahi duten arropa aukeratu ahal izan dezaten eta, gero, aldaketak egin ahal izateko. Horretarako ere, Tiktok, Instagram eta beste sare sozial batzuk erabiliko ditugu, zenbat eta bizkorrago zabaltzeko, eta, ondorioz, enpresa azkarrago hazteko.

Baliabide nahikoak dugunean, denda fisikoak jarriko ditugu lehen aipatutako hirien erdigunean, eta, horrela, gure erosleen adina ere aldatu ahal izango dugu, on-line bidez zailtasunak dituzten pertsonak baitaude. Orduan, gure denda fisikoak sortu ondoren, aurkezpen bat egingo dugu nahi duenarentzat, eta zuen proposamenak entzungo ditugu, hobetzeko eta ahalik eta gehien asetzeko.